**HIRIGINTZA BATZORDEAREN AKTA**
***Acta de la comisión de urbanismo***

**Eguna:** 2011ko Abenduaren 12a, astelehena.
**Ordua:** arratsaldeko 6 etan.

**Bertaratuak:**
Udaleko ordezkariak: Garbiñe Elizegi (Bildu), Isabel Olave, Mari Carmen Iribarren eta Begoña Sanzberro (UPN) Herrietako alkateak: Xabi Torres (Elizondo) eta Xabi Ospital (Erratzu) , Cristina Arregi (udaleko arkitektoa) eta 4 herritar.

Lehenbiziko gaia:

Udal Planaren aldaketak:

1) Arizkungo 56. poligonoko 155. partzela udalak hasierako onespena ematea udal planaren aldaketari. Cristinak aldaketaren ezaugarrien berri ematen du hurrengo osoko bilkuran onartzeko. Berez eraikigarria den eremu bat zabaltzea eskatzen da bi eraikinen artean toki gutxi gelditzen delakoz eta biltegi batetik eraiki nahi den etxea hurbilegi ez gelditzeko. Nafarroako Gobernuaren onespena beharko du aldaketa honek.
2) Elizondoko 16. poligonoko 690. partzela. Behin-betiko onespena ematea hasierako onespena emana zuen udal planaren aldaketari. Kasu honetan aspaldi egindako terraza bat kontsolidatzea eskatzen da konpondu ahal izateko eta teilatua emateko.
3) 16. poligonoan 690. partzelan egin nahi den xehetasunezko aldaketari hasierako onespena ematea. Araudiak eraikitako bi eraikinen artean 6 metro behar direla dio. Kasu honetan ondoko etxeak ez zituen 3 metro utzi mugatik eta orain eraiki nahi duenak berak mugarekin 3 metro uztea eskatzen du.
4) Erratzuko 55. poligonoko 56. partzela. Etxe batean perfila aldatzea eskatzen da eta horretarako udal planari hasierako onespena ematea eskatzen da.

Bigarren gaia:

Elizondoko AR-1 banaketa eremua:
2002an proposatu zen Elizondoko AR-1 banaketa eremuko hektarea bakoitzean 15 etxebizitza egitea, 69 etxebizitza denetara. Udal araudiaren arabera horien %50a babes ofizialeko etxebizitzak izan beharko lirateke. Promotoreak aurreko udalari proposatu zion etxe gehiago egitea. Horretarako planaren hasierako aldaketa eta aldaketa probisionala onartu ziren.

***Día**: 12 de diciembre de 2011, lunes.*
***Hora:** 18:00h.*

***Asistentes:***
*Representantes municipales: Garbiñe Elizegi (Bildu), Isabel Olave, Mari Carmen Iribarren y Begoña Sanzberro (UPN), Alcaldes jurados: Xabi Torres (Elizondo) y Xabi Ospital (Erratzu), Cristina Arregi (arquitecta municipal) y 4 ciudadanos/as.*

*Primer punto:*

*Modificaciones en el Plan Municipal:*

1) *Aprobación inicial del cambio en el Plan Municipal, parcela 155 del polígono 56 de Arizkun. Cristina explica las características de la modificación para que sean aprobadas en el próximo pleno. Se solicita la ampliación de suelo urbanizable, dada la escasa distancia existente entre dos edificios y con el fin de que la casa que se quiere construir a partir de un almacén no quede demasiado cerca. Esta modificación requiere la aprobación por parte del Gobierno de Navarra.*
2) *Aprobación definitiva de la modificación del plan municipal, aprobado inicialmente, parcela 690 del polígono 16 de Elizondo. En este caso se solicita la consolidación de una terraza construida hace ya tiempo para poder repararla y ponerle tejado.*
3) *Aprobación inicial de modificación pormenorizada, parcela 690. La normativa exige una distancia de 6 metros entre dos edificios. En este caso la casa adyacente no dejaba 3 metros de distancia desde el límite y el solicitante pide dejar una distancia de 3 metros con el linde.*
4) *Parcela 56 del polígono 55, Erratzu. Solicita el cambio del perfil de una casa, y para ello solicita aprobación inicial del plan municipal.*

*Segundo punto:*

*AR-1 de Elizondo:*
*En 2002 se propuso la construcción de 15 viviendas en la AR-1 de Elizondo, 69 viviendas por hectárea en total. Según la normativa municipal el 50% de esas viviendas debería ser de protección oficial. La promotora propuso al anterior ayuntamiento la construcción de un mayor número de viviendas. Para ello, se aprobaron la modificación inicial y la provisional. Más*

Ondoren, aldaketa Nafarroako Gobernura bidali zen eta handik eskaera desberdinak egin dituzte, horietako batzuk udalaren iritzia eskatuz.
Eztabaida sortzen da Nafarroako Gobernuaren txostenaren inguruan eta erabakia noren teilatuan dagoen momentu honetan.
Udalak, proiektuaren egoera eta tamaina kontuan harturik, batzar informatiboak antolatzea proposatzen dio Elizondoko Herriari eta promotoreari. Promotoreak ez du egokia ikusten Batzarrera eramatea eta horren erabakiaren beldur da. Bere iritziz jendaurrean izan da eta ez denez alegaziorik egon ez du beharrezkoa ikusten herriaren oniritzirik jasotzea.
Elizondoko alkateak dio Batzarrea egingo duela gaiaren inguruan eta promotorea ere bertara gonbidatzen duela bertara bere azalpenak emateko.

*adelante, la modificación fue remitida al Gobierno de Navarra y desde aquí se hacen diferentes solicitudes, entre ellas algunas solicitando la opinión del ayuntamiento.*
*Surge el debate en torno al informe del Gobierno de Navarra y en manos de quién se encuentra en este momento la decisión.*
*El ayuntamiento, teniendo en cuenta la situación y la magnitud del proyecto, propone al pueblo de Elizondo y a la promotora realizar asambleas informativas. La promotora no ve adecuado llevar el tema a Batzarre y tiene miedo de la decisión que ésta pueda tomar. En su opinión ha estado en exposición pública y como no hubo alegaciones no ve necesaria la aprobación por parte de los/as ciudadanos/as. El alcalde jurado de Elizondo dice que celebrará Batzarre para tratar el tema y que invita también a la promotora para que pueda dar allí sus explicaciones.*

<u>Hirugarren gaia:</u>

<u>Elizondoko UE-13</u>

Elizondoko UE-13 unitatearen birzatiketa egin zenean partikular baten egurtegia ez zen kontuan hartu egiterakoan. Arkitektoa konturatu zirela onartu zuen eta udalarekin batera horrela uztea erabaki zen. Gaur egun partikular bat udalera etorri da egurtegi horren eskriturekin eta egurtegi hori agertzen ez denez tramitazio administratibo bat abiatu behar da afera konpontzeko. Zehaztu gabe dago legearen arabera erabiltzen ahal den formula zein den arazoa konpontzea korapilatsua delakoz. Aholkularitza teknikoekin aztertu eta osoko bilkuratik pasatuko da gaia.

*<u>Tercer punto:</u>*

*<u>UE-13 de Elizondo</u>*

*Cuando se realizó la reparcelación de la UE-13 de Elizondo no se tuvo en cuenta la leñera de un particular. El arquitecto admitió que se dieron cuenta de ello y que decidieron, junto con el ayuntamiento, dejarlo así. Ahora un particular se ha presentado en el ayuntamiento con las escrituras de dicha leñera y como esta leñera no aparece es necesario iniciar una tramitación administrativa para solucionarlo. No está detallada la fórmula legal que se puede utilizar para solucionar el problema porque es muy complicado. Se estudiará por parte de los asesores jurídicos y se llevará el asunto al pleno.*

<u>Laugarren gaia:</u>

<u>Gartzaingo Benta Zaharrea:</u>

Hasierako onespena eman zitzaion proiektu honi baina Nafarrroako Gobernuko Bianako Printzea erakundeak aurkako txostena aurkeztu zuen. Cristinak dioenez eraikin hau katalogoan dagoenez ezin da bota eta hori da proiektuan proposatzen dena. Halaber, aldaketa hau estrukturantea dela uste du eta xehakatu bezala tramitatu da.
Eztabaida sortzen da Bianako Printzearen txostenen inguruan eta irizpide bat izan beharko dela, ez baitira legez lotesleak. Dena den, eskatzen bazaio, txostena kontuan hartu beharko litzatekeela uste du udalak. Hala ere irizpide batzuk jartzea ez legoke gaizki.

*<u>Cuarto punto:</u>*

*<u>Benta Zaharrea de Gartzain</u>*

*Se le dio la aprobación inicial al proyecto pero desde Principe de Viana el Gobierno de Navarra hizo un informe contrario al proyecto. Según Cristina este edificio está catalogado y por lo tanto no se puede derribar y eso es lo que se propone en el proyecto. Además piensa que se trata de una modificación estructurante y se ha tramitado como pormenorizada.*
*Surge el debate en torno a los informes de Príncipe de Viana y que debe haber un único criterio, porque según la ley no son vinculantes. De todas formas, si se le solicita un informe, el ayuntamiento cree que debería tenerse en cuenta. Por otra parte no estaría de más establecer unos criterios.*

<u>Bosgarren gaia:</u>

<u>ARROLLALEKU ERRATZU AR-2</u>

Gai hau, azkenengo batzordean datu batzuk argitu

*Quinto punto:*

*<u>ARROLLALEKU ERRATZU AR-2</u>*

*Se ha estudiado el tema porque en la asamblea*

gabe gelditu zirenez, egoera argitzearren aztertu da. Behin betiko onespena eman zitzaion 12 etxebizitza egiteko. 2010eko urriaren 1ean hasierako onespena eman zitzaion 12 etxebizitza izan beharrean 19 egiteko. Modu horretan partzelak 700 metro karratukoak izan beharrean 306 metro karratukoak izango lirateke.
2011ko otsailaren 14an behin betiko onespena eman zitzaion.
Eztabaida sortzen da Nafarroako Gobernuko txosten batek galdetzen duelakoz horietako zenbat izanen diren babes ofizialekoak. Bertaratutako batzuek diote Baztanen babes ofizialeko kopurua ez dela aplikatzen 500 biztanle baino gutxiagoko herrietan.

*anterior quedaron algunos datos sin aclarar. Se le dio la aprobación inicial a la construcción de 12 viviendas. El 1 de octubre de 2010 se le dio la aprobación inicial al aumento del número de viviendas de 12 a 19. Así, las parcelas pasaban de ser de 700m2 a 306m2.*
*El 14 de febrero de 2011 se le dio la aprobación definitiva.*
*Surge le debate porque un informe del Gobierno de Navarra pregunta cuántas de esas viviendas van a ser de protección oficial. Algunos/as comentan que en Baztan no se aplica el número de viviendas de protección oficial en pueblos de menos de 500 habitantes*